

solasean



Izen abizenak:

Miren Arantzazu Lopez de Alda Martinez

Jaioterría: Gasteiz

Bizitokia: Samaniego

Lanbidea: Euskara Teknikaria



¿Cuál ha sido tu experiencia con el euskera?

Tuve la suerte de ir a una ikastola pseudo-legal, o paralegal, en aquellos tiempos en los que, dependiendo de si el profesor sabía o no, dábamos las clases en euskera o en castellano. A mí me tocaron andereños y maisus euskaldunes en casi todas las asignaturas, salvo en inglés, matemáticas y física-química. Por lo tanto no era modelo D ni nada que se le pareciera. De hecho, después de acabar la educación básica y bachiller, había gente que no era capaz de hablar en euskera. Eran otros tiempos y, o eras una persona muy motivada o no era nada fácil.

Al final en la ikastola no sé si aprendí mucho euskera o poco, lo que sí que recogí fue amor y dedicación por lo euskaldun y la lengua en sí, y por eso, cada vez que yo tenía ocasión lo hablaba y lo practicaba. Creo que fue la clave, bueno, eso e ir con 14 años a un baserri en un entorno en el que nadie sabía castellano, a trabajar dentro de casa y en el campo a cambio del hospedaje; allí fue donde realmente lo que yo había aprendido se asentó, normalizó, naturalizó en un ámbito nada académico, ni formal.... con mucho sudor pero mucho disfrute.

Arabako Errioxako euskara teknikari lanean hasitakoan espero zenuena aurkitu zenuen?

Inolaz ere ez, ilusioa eta gogoia seko

lehortu zitzaizkidan hainbeste kudeatze eginbeharren artean. Gure eremuan egiteko dagoen guztiaaaaaagatik eragingarriagoa izatea espero nuen, baina ez da erraza: hortaz, baliabide teoriko-praktiko horiek guztiak barneratzeko berebiziko ahaleginak egiten ari naiz. Izan ere, gurean euskararen egoera ona ez denez, hainbeste uzten digu egiteko, hainbeste aukera aldi berean, hainbeste pauso txiki eman behar dira edozer lortzeko...eta, jakina, norabide egokian! Eta egoera honetan, dauzkagun baliabide, laguntza, babes urriak ezin ditugu bidean alferrik galdu.

Zein da euskararen egoera Arabako Errioxan?

Kontuan izanda non gauden – periferiaren hegoaldean, non eta mugan- dugun tradizioa -euskararen presentzia hainbeste urtetan galduta egon ondoren- euskararen gaia ez da hemengo pertsona gehienentzat funtsezkoa; gutxi batzuentzako du lehenasuna, eskubide osoa behar balu ere. Edonola ere, botereko tokietan daudenak, eredugarriak eta ausartak izan ordez, gutxieneko egin beharrak betetzera mugatzen dira, betetzen dituztenean.

Hainbat urtetan zenbat jende gehiagok euskaraz dakien datuari erreparatuz gero, pozik egoteko moduko zenbakiak atera daitezke, gizartearen laurdenak euskara ulertzen duelako, baina, hizkuntza ikasi

izanarekin edo jakitearekin ez dago hizkuntzaren iraupena inolaz ere bermatuta. Ikastetik aritzerako pauso hori eman ezean jai daukagu. Hori ez da euskaraz ikasi eta gero gaztelania hutsean aritzen diren gazteen errua bakarrik: horretan jende asko gaude sartuta bakoitza gure erantzukizunarekin, baina hor dago erroka: eremu formal, ikaskuntza, lanerako hizkuntza eskakizunetatik... haratago euskararen eragina, erabilpena zabaltzeko beharra dugu edo akabo!

Ari gara pausoak ematen eta ni ez naiz inor bakoitzari zer egin behar duen esateko, baina ez da inor libratzen: kontzientzia falta da, eskubideak ditugula sinistu behar dugu, erantzukizuna falta da, konpromisoa falta da, benetako inplikazioa, tolerantzia falta da eta eredu onak falta dira. Ondo egin direnak mantendu eta ikustarazi beharko ditugu eta ilusio berriak piztu.

Zein dira euskararen egoera hobetzeko dituzun asmoak edo errokek?

Nereak eta bi ari naiz egiten prozedurak, legeak eta bestelako izapideez jabetzeko. Uste nuen baino gehiago ari zait kostatzen edo uste baino zailagoa da; Hizkuntza Politika hodei handi bat da. Egiteko asmoa dudana honakoa da: egoera aztertu, irizpideak finkatu eta horietaranzko aurrera pauso zehatzak eman... Eredu ona izan nahi nuke, behartu gabe eta tolerantziak bestelako errealitateak nireira hurbildu,

hausnartu, baloratu, aliantzak bilatu, aztertu, emaitzen arabera aldaketak egin eta jarraitu... beti aurrera, atzerapausorik gabe.

Hay mucha gente que no se anima a aprender euskera, porque son muchas las creencias negativas que hay en cuanto al aprendizaje del euskara. ¿Qué les dirías?

Que el euskera es la lengua más antigua de Europa -no lo decimos los vascos/as sino los/as lingüistas expertos/as de cualquier sitio del mundo y es fruto de una cultura milenaria que nos compete a todas las personas proteger y mimar. ¿Qué harían los/as viticultores/as de esta zona si tuvieran una cepa milenaria en peligro? A los/as que solo mercadean no les interesaría pero a la inmensa mayoría que siente la cultura del vino como suya seguro que sí porque es la cepa más antigua de Europa, la que lleva aquí al menos 2000 años la que nadie sabe qué genética tiene... La mayoría se implicaría. Eso es lo que tenemos que conseguir, que la gente se acerque al euskera y que para las generaciones que lo han tenido más fácil no sea un mero trámite y encuentren la manera de utilizarlo con naturalidad y disfrute.

Para los/as que piensan que es caro: ¿aprender inglés o cualquier otra lengua es caro? ¿qué ocurre, que la persona que se dedica a dar clases de euskera tiene que cobrar menos que la que enseña otras lenguas? Impartir una clase del idioma que sea tiene su coste. Hoy en día hay muchas ayudas para los/as que aprenden euskera. De todas formas, está previsto en un futuro no muy lejano que entre las diferentes instituciones, Gobierno Vasco, diputaciones y ayuntamientos, se consiga unificar las ayudas de tal forma que quien realmente quiera aprender euskera no tenga que adelantar ni un solo euro.

Y el euskera no es más difícil de aprender que otras lenguas o los/as que hemos podido aprender euskera seríamos más inteligentes y no por ello lo somos. Depende de la lengua materna, de la edad de aprendizaje, y de que la persona que aprende piense que todas las lenguas tienen que ser como la suya; pero al final, lo que más influye es la carga emocional que se le ponga: con amor por lo que se hace todo es más fácil y llevadero.

Olentzero, Errege Magoak... opari garaia izaten da pasa duguna, baina edozein aitzakia da ona oparixoren bat lagun hurkoari egiteko urtean zehar, dela urtebetetze eguna, dela beste edozer. Ez dakigu askotan nork disfrutatzen duen gehien: oparia jasotzen duenak edo egiten duenak... Gure lagunaren artean ondoko galdera egin dugu: Zein izan da jaso duzun oparirik berezietakoa? Hauexek euren erantzunak:



ANA

Nire oparirik berezietarikoa bederatzirterekin izan zen, *Quimicefa* oparitu zidatenean. Aita kimikaria zen, eta niri asko gustatzen zitzaidan bere lana. Ahizpak eta biok etxeko terraza laborategi bihurtzen genuen, eta esperimenduak egiten genituen. Oso ondo sentitzen ginen gauza berriak sortzen saiatzean, nahiz eta askotan gure bizitza arriskuan egon.

Mi regalo más especial fue con nueve años, cuando me regalaron el *Quimicefa*. Mi padre era químico y a mí me gustaba mucho su trabajo. Mi hermana y yo convertíamos la terraza de casa en laboratorio y hacíamos experimentos. Nos sentíamos muy bien intentando crear cosas nuevas, aunque muchas veces nuestra vida estuvo en juego.

BLANCA

Nire oparirik bitxiena hamaika urterekin jaso nuen. Egun batean dantza-klasean negoela, bat-batean, musika itzali egin zen, eta aita agertu zen. Zelako sorpresa! Lau hilabete neramatzan aita ikusi gabe.

Mi regalo más especial lo recibí con once años. Un día estando en clase de baile, de repente, se apagó la música, y ahí apareció mi padre. ¡Vaya sorpresa! Llevaba cuatro meses sin verle.



JOSUNE

Ni oso liburuzalea naiz. Gauero irakurtzea asko gustatzen zait beraz, nire opari kutuna *ebook*-a da. Probatu al duzue? Nik hasieran ez zitzaidala gustatuko pentsatzen nuen, baina orain izugarri gustatzen zait. Oso praktikoa da, gutxi pisatzen du eta erraza da irakurtzea berarekin. Gainera, duen argiak mesede egiten die gure begiei; dudarik gabe ohiko liburuak ezer gabe irakurtzea baino hobeto. Hortaz, *ebook*-a erostea gomendatzen dizuet. Hori, edo Olentzerori eskatzea...

Soy muy aficionada a los libros. Me gusta mucho leer todas las noches. Así que mi regalo favorito es un *ebook*. ¿Lo habéis probado? Yo al principio pensaba que no me iba a gustar, pero ahora me encanta. Es muy práctico, pesa poco y es fácil leer con él. Además, su luz es mejor para tus ojos que leer en un libro de papel. Por lo tanto, te recomiendo comprarte un *ebook*. Eso, o pedírselo a Olentzero...



Olentzero, Reyes Magos... estos meses pasados suelen ser tiempo de regalos, ¿verdad? Pero cualquier excusa es buena para hacer un regalillo al prójimo durante el año, en cumpleaños, porque queremos... No sabemos quién disfruta más, si el/la que lo recibe o el/la que lo hace... Hemos hecho la siguiente pregunta a algunos/as amigos/as: de los regalos que has recibido ¿cuál ha sido uno de los más especiales e inolvidables? Estas sus respuestas:

ASTRID

Gabonak-eta hortxe utzi ditugu, eta garai horrek opari berezietakoa bat ekarri dit gogora. Orain dela bi urte lagun batek bodega bat bisitatzera joateko txartela oparitu zidan. Ilusio handia egin zidan. Arabako Errioxan bizi arren, ordura arte ez nintzen sekula ere upategi batean egon. Ezagutzen ez nituen gauza asko ikasi nituen; itzel pasa nuen, eta, gainera, oso ardo ona dastatu nuen. Besterik eska al nezakeen?

Esta época pasada me ha recordado un regalo que me hicieron el cual recuerdo con mucho cariño. Hace unos dos años un amigo me regaló una invitación para ir a visitar una bodega. ¡Me hizo mucha ilusión! A pesar de vivir en Rioja Alavesa, nunca había estado hasta entonces en ninguna. Aprendí muchas cosas que desconocía. Lo pasé fenomenal, y, además, degusté un vino excelente. ¿Qué más podía pedir?



ITSASO

Nire opari kutuna nire lehenengo katua izan zen. Aitak eta ahizpak adoptatu zuten, eta hirurona da, dagoeneko. Orain dela lau urte, 2016ko ekainean, errekueretarako ikasten ari nintzela, aita eta ahizpa gelan sartu ziren katuarekin. Gogoratzen dut txiki-txikia zela; bi aste besterik ez zituen eta oso polita. Gaur egun, ordea, handi-handia da. Opari berezia izan zen, asko maite dudalako katu hori, baita munduko katu guztiak ere.

Uno de mis regalos favoritos fue mi primer gato. Mi padre y mi hermana lo adoptaron. Y hace cuatro años, en junio de 2016 mientras estaba estudiando en mi cuarto para las recuperaciones, entraron con él. Era pequeñito, ya que solo tenía dos semanas, y muy bonito. Hoy en día es enorme. Fue un regalo muy especial, porque quiero mucho a mi gato y a todos los gatos del mundo.



PATRICIA

Txikitan izarrak eta planetak gustatzen zitzaizkidan. Astronomia izan nahi nuen. Hamaika urte nituela, Olentzerok planetei buruzko jolas bat ekarri zidan. Zenbat ilargi zeukaten edo zein ziren haien ezaugarriak jakin ahal izan nuen. Gainera, urte horretan Errege Magoek teleskopio bat ekarri zidaten.

De pequeña me gustaban las estrellas y los planetas. Quería ser astrónoma. Cuando tenía once años, Olentzero me trajo un juego sobre los planetas. Podía saber cuántas lunas tenían o cuáles eran sus características. Además, ese año los Reyes Magos me trajeron un telescopio.



PAULA

Duela lau urte, oso opari berezia egin zidaten, baina niretzat ez zen opari materiala izan, familiarekin gozatzeko bidaia baizik. Txikitan ezin izan nintzen Disneyland bisitatzera joan, hainbat konturengatik, eta beti izan nuen arantzatxo hori sartuta. Nire ilusiorik handiena fantasiaren mundu ederra ezagutzea zen, eta gurasoei esker lortu nuen. Gainera, zortea izan nuen, lagun batek bertan lanean baitziharduen. Egia esan, bidaia ikaragarri ederra izan zen, haurtzaroan murgildu bainintzen egun batzuetan, eta munduko pertsonarik zoriontsuena izan nintzela esan behar dut. Bisita dezazuen gomendatzen dizuet.

Hace unos cuatro años me hicieron un regalo muy especial. No era nada material, sino la oportunidad de disfrutar en familia durante un viaje. De pequeña no pude visitar Disneyland por varios motivos, y siempre he tenido “una espinita clavada”. Mi mayor ilusión era conocer ese mundo de fantasía y gracias a mis padres lo descubrí. Además, tuve suerte ya que un amigo trabaja allí. El viaje fue fantástico, porque pude recordar la infancia durante unos días, y debo decir que me sentí la persona más feliz del mundo. Os recomiendo que lo visitéis.



RUBEN

Txikitan, aiton-amonak bizi ziren kalean bizikletak saltzen eta konpontzen ziren denda zegoen. Beraien etxera joaten nintzenean, beti erakuslehoaren aurrean geratzen nintzen alumiziozko bizikleta zoragarri bati begira. Olentzero eguna iritsi zenean, opari hori aurkitu nuen aiton-amonen etxean. Ez zait inoiz ahaztuko!

Cuando era pequeño, en la calle de mis abuelos, había una tienda donde vendían y arreglaban bicicletas. Siempre que iba a su casa me quedaba mirando a una bici de aluminio que había en el escaparate. Cuando llegó el día de Olentzero, encontré esa misma bicicleta en casa de mis abuelos. Nunca olvidaré ese regalo.



LAURA

Urtero, abenduko zubian, Madrilera joaten naiz familiarekin. Bidaia hori osaba Jose Luisek oparitzen dit beti, eta oso gustuko dut. Hura da nire bizitzan zehar oparirik berezienak egin dizkidana, baina hain da estua gure arteko lotura, non ez dudan ezer materialik behar. Harekin denbora igarotzea da gehien baloratzen dudana.

Cada año, en el puente de diciembre, voy a Madrid con mi familia. Ese viaje siempre me lo regala mi tío Jose Luis y me encanta. A lo largo de mi vida, los regalos más especiales siempre me los ha hecho él, pero es tan estrecho el vínculo que nos une que no necesito nada material. Lo que más valoro es pasar tiempo junto a él.

SAIDA

Izebak, artista handi batek, duela 10 urte jaso dudan oparirik politena egin zidan. Nire andregai soinekoa, hain zuzen ere. Elkarrekin diseinatu genuen, eta hark zeta ganean margotu eta josi zuen. Oso polita izan zen prozesu osoa. Hil zela urtebete igaro zenean, erakusketa bat antolatu zen haren bizitza eta obraren omenez. Egun hartan soineko hori jantzi nuen berriro, eta orduan konturatu nintzen zein berezia izan zen oparia.

Mi tía, una gran artista, me hizo hace 10 años el regalo más bonito que me hayan hecho nunca: mi vestido de novia. Juntas lo diseñamos y ella lo pintó sobre seda y lo cosió. Fue muy bonito todo el proceso. Cuando se cumplía un año de su muerte se organizó una exposición en honor a ella y toda su obra. Aquel día volví a ponerme ese vestido y creo que fue entonces cuando me di cuenta de lo especial que había sido aquel regalo.



ICIAR

Gure lehen ezkontzaren urteurrenean senarra txakur batekin etorri zen etxera. Oso txikia zen; hilabete eta erdi zeukan, eta oso polita zen. Nik beti esaten nion neure buruari: “Etxean ez dut txakurrik nahi; lan handia ematen dute eta izugarri zinkintzen dute”. Horrexegatik, senarrak etxola egin zuen baratzean txakurrarentzat. Baina lau urte pasa eta gero, etxean jarraitzen du gurekin. Eta, egia esanda, hirurok oso pozik gaude elkarrekin.

En nuestro primer aniversario de bodas, mi marido vino a casa con un perro. Era muy pequeño, tenía año y medio y era muy bonito. Yo siempre decía: “no quiero perros en casa, dan mucho trabajo y manchan mucho”. Entonces mi marido hizo una caseta para el perro en la huerta. Pero han pasado cuatro años y el perro sigue en casa con nosotros. Y la verdad es que estamos felices los tres juntos.

ANA

Nire bizitzako oparirik maitatuena argazki-kamera bat izan zen. Izeba batek oparitu zidan nire lehen jaunartzearen egunean orain dela asko. Hainbeste denbora igaro da, non argazki-kamera mota hau erabat desagertuta dagoen dendetan. *Pocket* zuen izena, oso arina zen eta karrete berezia erabiltzen zuen, 110 milimetrokoa, alegia. Orain asko maite dut argazkia, eta pentsatzen dut nire oraingo zaletasunak garai hartako opariarekin zerikusia duela.

Mi regalo preferido fue una cámara de fotos. Me lo regaló una tía el día de mi primera comunión hace mil años. Ha pasado tanto tiempo, que ese tipo de cámara está totalmente desaparecida de las tiendas. Es una cámara ultraligera, denominada *pocket*, y que utilizaba un carrete especial de 110 milímetros. Ahora me gusta mucho la fotografía y creo que mi afición actual tiene relación con aquel regalo.





TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: Arabako Errioxako IKA.

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikaeuskaltegiak.eus>

errioxa@ikaeuskaltegiak.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

zuek ere euskaraz

Hementxe duzue elkarrizketa bat, lan elkarrizketa, hain zuzen. Ordezkatu parentesi artean dagoena beheko zerrendan dauden elementuen artean egokiak aukeratzuz, eta osorik irakurriko duzue.

Aquí tenéis una breve conversación, una entrevista de trabajo. Sustituir lo que está entre paréntesis por algún elemento de la lista de abajo, y podréis leerla correctamente.

LAN-ELKARRIZKETA

Egun on!

(Igualmente).

Antzina Leizarraga naiz, (**responsable de la empresa**). Zure datu pertsonalak, mesedez: nongoa, non bizi?...

(**Me llamo Antonio**), Antonio Gorostidi. Gasteizkoa naiz, baina Trebiñon (**nací**). Orain Albaina herrian (**vivo**). Albaina Trebiñoko herri bat da. 45 urte dauzkat, eta (**soy casado**). Hiru seme-alaba dauzkat.

Nolakoa zara?

Tira, (**soy una persona muy tranquila**); arduratsua, langilea eta oso jakingura; nire lanean berrikuntzak egitea gustatzen zait. (**Me gusta mucho investigar**).


Esan, mesedez, zure lan-esperientzia.

Tira, (**he trabajado de cocinero en un famoso restaurante de Laguardia**). Bartzelonan hiru urte ibili naiz (**pinche**), eta azken lana Lantziegon: sukaldariburu ibili naiz bi urte.

(**¡Muy bien, perfecto!**) Telefonoz hots egingo dizut. (**¡Ya estaremos!**)

Eskerrik asko!

- Izugarri maite dut ikertzea
- Baita zeuri ere!
- Izango gara!
- jaio nintzen
- enpresako burua
- Biasterin sukaldari ibili naiz jatetxe ospetsu batean
- Antonio dut izena
- oso persona lasaia naiz
- sukalde-laguntzaile
- Ederki!
- ezkondua naiz
- bizi naiz



Aurreko elkarrizketan sukaldari ibili da Antonio azken urteotan. Ea ondoko testutxoak dagozkien lanbideekin lotzeko gai zareten. Oso erraza da!

En la anterior conversación Antonio nos dice que ha sido cocinero en varios sitios. A ver si unís correctamente las siguientes profesiones con su correspondiente definición. ¡Es muy fácil!

LANBIDEAK

A) AROTZ / B) ARTZAIN / C) LORAZAIN / D) OKIN / E) IDAZLE / F) ALBAITARI

Bere irudimenaren bidez egoera bereziak, paisaia ederrak, persona txundigarriak eta abar ezagutzeko aukera izaten dugu. Lagun horrek egiten duena ezinbestekoa da gure aisialdirako: _____

Geure parke eta inguruak polit eta dotore mantentzen dituen langilea: _____

Egurra erabiliz altzari ederrak egiten dituen: _____

Ardiak eta bestelako abereak zaintzen dituen baserritarra: _____

Etxeko abereak eta bestelako animaliak zaintzen dituen persona; animalien sendagilea da: _____

Ogi goxoak egiten dituen. Egunero lan egin behar izaten duena eta oso goiz altxatu: _____